



2018/11/16ko prentsa-oharra

ZERBITZU PUBLIKO ELEKTRONIKOEI BURUZKO ESTADISTIKA –ZPEE- 2016

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak administrazio elektronikoari buruzko terminoak jasotzen dituen glosario elebidun bat prestatu eta hedatu du

Administrazio elektronikoan oso maiz erabiltzen diren kontzeptuen definizioak jasotzen dituen glosario bat argitaratu berri du Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak.

Gaztelaniazko bertsioarekin batera, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko -IVAP- Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egindako euskarazko bertsioa eskaintzen da, gero eta gehiago erabiltzen diren kontzeptuen kopuru handi bat ikuspegi normalizatzaile batez bilduta: ‘erabilerraztasuna’, ‘edukien kudeatzailea’, ‘elkarreragingarritasuna’, ‘kanal anitzeko plataforma’, ‘egoitza elektronikoa’ eta horrela 155 termino osatu arte.

Tresna hau Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek erabiltzen dituzten 1.131 atarietako web-kudeatzaileei eta itzultzaileei lana errazteko sortu da.

Glosario hau ‘Zerbitzu Publiko Elektronikoei buruzko 2016ko Estatistika’ prestatzeko oinarri bezala erabili da dagoeneko.

Bestalde, oso jardun dinamikoa duen eta Interneten garapen berriei oso lotua dagoen sektoreari heltzen dionez, uste dugu aldiaren behin termino gehiago erantsiko zaizkiola.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Tef. 945 01 64 26 – Fax 945 01 90 29

Glosarioan sartzeko:

[ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO TERMINOEN GLOSARIOA](#)